

ZALDIA ETA EUSKALDUNOK

Zaldiaren eragina Euskal historian, mitologian ,pentsaera eta folklorea

Egilea: Jon Arregi Gurutzeaga “Zubialde”

2011ko otsaila.

zubibetelu@hotmail.com



HITZAURREA:

Zaldia eta Euskandunok milaka urtetan zehar bizi izan gara elkarrekin. Zaldia gure herri garapenean, izaera, kultura, folklore eta mitologian utzi duen arrastoa nabarmena da, izan ere animali sinboliko edo "totem" gisa erabili dugu mendeetan zehar.

Zoritxarrez, gaur egun Euskaldunak ez dugu zaldiaren kultura bat beste zenbait herritan bezala: mongoliarrak, Ameriketako iparraldeko indioak, "cowboy" Amerikarrak, gautxo Argentinarrak edo Errusia eta Ukrainako kosakiarrak edo herri Arabiarrak esate baterako.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi zaldiari bizkar eman ez bizi izan garela beste herri batzuk bezela: ohian tropikaletako edo Afrikako herri zenbait bezela.

Euskaldunon historia zaldiarekin idatzi da une askotan, aitzin-aroan eta erdi-aroan batipat.

Horren adibide dira gure lurraldean mendeetan zehar garatu diren lau bertako zaldi arraza, hau da, pottoka, zaldiko Naparra, Auritzko zaldia eta mendiko Euskal zaldia.

Egia esatearren, onartu behar da Euskal baserritarra beste hainbat herri ez bezela, nahiago izan duela behia, idia eta astoa bere eguneroko lanetarako, baina hori ez du esan nahi zaldiaz baliatu ez denik.

Gabriel Arestiren "Euskaldunak" olerkian zioen: "... ez dugu zaldirik, ez gera zaldunak, ...gu gera Euskaldunak".

Nire ustez oker zegoen gure olerkari ezaguna eta hori azaltzen saiatuko gara artikulu honetan.

HISTORIAURREA ETA AINTZIN AROA

Seguraski, Euskaldunok gure ama-lurrera iritsi baino lehen, zaldia gure baso eta mendietan biziko zen. Izan ere Ekaingo eta Isturitzeko haitzuloetan aurkitutako aztarna eta irudi prehistorikoek hori frogatzen dute.

Baina, zehatzak izatearren, garai hartan hemen bizi zen zaldia ez zen gaur egun ezagutzen duguna, baizik eta seguraski, haren arbaso bat, "*equus caballus solutrensis*" bezela ezagutua. Antzinako zaldi mota hau, duela 40.000 bat urte iritsi zen gurera Eurasiako estepetatik.



Argazkia, Ekaingo margoak.

Batzuk diotenez, zaldi mota hau desagertu zen eboluzioaren zurrunbiloan irentsia eta kristo aurreko 2000 urte-arte zelten edo herri indoeuropeoren eskutik etorri zen arte, gurean ez zen zaldirik izan.

Teoria hau gaur egun baztertua dago, izan ere, Nafarroan Otsagin aurkitzen den Zatoia izeneko aztarnategian aurkitutako hezurrei esker, badakigu denbora tarte horretan zaldia gure tartean iraun zuela.

Gaur egun gurekin bizi den zaldia "*equus caballus gmelinii*" edo tarpan izeneko zaldi motaren ondorengoak dira, lehen esan dugun bezela, zaldi hauek duela 2000 urte etorri ziren gugana eta aldaketa sakon bat eragin zuten gure herrian, izan ere, ordurarte zaldiak; oreinak edo basabehiak bezela, animali basatiak ziren eta ehizatu egiten ziren.



Zaldun zelta.

Eurasiako zelaietatik mendebalderantz abiatu ziren aipatutako herri nomada hauek. Mendeetan zehar Europa zeharkatuz gugana iritsi ziren gurdia, burdina eta beste aurrerapen batzuk ekarriz, haien artean, zaldi heziak.

Ziur, zaldi hezien erabilerak aldaketa sakon bat ekarriko zuen garai hartako Euskaldunetan, batez ere beraien bizimoduan, pentsaeran eta mitologian bete betean sartu zen.

Prozesu honetan ez dago herri zelten eragina ukatzerik, izan ere “zaldi” hitza bera zelta hizkuntzaren mailegu bat da, izan ere gaelikoz zaldiari “zel” deitzen diote, germaniera zaharrez “zelden” deitzen zioten eta latinez berriz “zeldon”.

Zaldunen herri bihurtu ginen eta hori frogatzeko baditugu hainbat testu; hauen artean Estrabon, Erromako garaiko geografoa, hauxe aipatzen zuen Kantauri aldeko herri menditarrei buruz :

“Menditar guztiak.. ..akerkia jan ohi dute eta animaliotako bat eta zaldiak sakrifikatzen dituzte Aresen ohoretan....

...Lehiaketa gimnastiko eta militarrek egiten dituzte, baita nogehiagokako zaldi lasterteketak...

...horrela bizi dira Galiziarrek, Asturiarrak, Kantabroak eta Euskadunak mendi Pirineotaraino. Denak modu beretsuan bizi bait dira.”

Bestalde, bitxia da antzinako Euskaraz arkeologiaren bidez berreskuratu diren gizon deitura zaharrenetarikoz batzuk, zaldiarekin erlazionatuta daude, adibidez; ARRANES ARBISKAR.

Erromatar garaiko Euskaldun hau, Ebro ibaiaren inguruko beste 50 zaldun Iberiarrekin batera Italiara joan zen soldadu bezela, Pompeyo izeneko senatari Erromatar bati laguntzera.

Eta, garaipena lortzen lagundu ziotelako, Erromatar hiri-tasuna eman zion zaldun talde honi. Hau dena Askoliko brontzean idatzita aurkitu zuten.

Garai hartan Erromatarrak Iberiako zaldiak eta zaldunak asko estimatzen zituzten nonbait, Euskaldunok barne.



Askoliko brontzea.

Lerga izeneko herri Nafarran, hilarri Erromatar bat aurkitu zuten eta bertan idatzia izen Euskaldun bat, "umesahar".

Bitxia da izen honen ganean, zaldi eta zaldun bat harrian landuta daude ;



Lergako hilarria.

Aipatzekoa da ere, gure lurraldean aurkitu ziren lehen txanponen artean badira batzuk, “barskunes” idazkia eramaten dutenak, bertan, alde batetik, “Euskal buru “ bat ikus daiteke, eta bestaldetik, zaldi eta zaldun baten irudia:



Erromatar garaiko Euskal txampona.

Argi dago garai hartan Euskaldunon bizitzan eta pentsaeran zaldiak toki garrantzitsua zuela, bere inguruko beste hainbat herrietan bezela.

Bada beste arrazoi bat teoria hau indartzeko; izan ere, Erromatarrek antzinaroan bere legioen bidez inperio handi bat lortu zuten, legioa zen horretarako erabili zen tresna, garai artako gudarako makina perfektuena.

Legioa oinezko soldadu multzoez osatzen zen, ongi heziak eta diziplinatuak, Armada honek zalduneria ere eramaten zuen laguntzaile gisa eta Erromatarrek normalean, zalduneria menperatutako herrietan bilatzen zuten ,hori dela eta Sarmatak , Galiarrak, Iberiarrak zaldun bezela maiz hartzen zituzten Erromatarrek, eta baita Euskaldunak ere:



Erromatar garaiko zalduneria.

“Cohors II vasconum equitata civium romanorum”,

Zaldun euskaldunetz osatutako multzo hau , Erromatar legio batean integratu zen, eta beraiekin batera munduko zenbait tokietara joan zen; esate baterako, 105 urtean Ingalaterran izan ziren, 109 urtean Mauritanian eta badakigu ere 122 urtean Hungarian izan zirela.

ERDI AROA

Garai honetan, Erroma erori ondoren, Godoak eta musulmanak etorri ziren Euskal Herrira, baina ez zuten dena menderatu, hori dela eta, Euskaldunok, lehen aldiz burujabetasuna lortu genuen eta gure erreinu propioa osatu genuen, Eneko Aritza gure lehen errege bihurtu zelarik.

Garai hartako Euskal Herria Ibn-Indari idazle Musulmanak hala deskribatu zuen 940 urtean;

“Banbaluna (Iruña), mendi altuen eta haran sakonen artean aurkitzen da.. ...bere biztanleak pobreak dira... gehienek Euskeraz hitzegiten dute eta horek ulergaitzak egiten ditu.

Beraien zaldiek apo qogorrek dituzte hanqo lurraren laztasunarengatik..”

Azken esaldi hau oso interesgarria iruditzen zait, izan ere, gure gaurko pottoka eta zaldiko Nafarraren bereizgarritasun bat aipatzen du. Kasualitatea?, ez dut ustel!

Gure Euskal Erregeek ere oso maite izan zituzten zaldiak, ea hemen adibide batzuk:

Fortun Gartzeiz: (882-905)

Testu baten dioenez, 893 urtean, gure erregea eta Aragoiko kondea zen Galindo Aznarri lagundu zion Labasal eta Binies arteko mugak jartzen;

“Egunsentian atera ziren erregea eta kondea zaldi gainean, pasa zituzten hango lurak eta mugarriak non jarri erabaki zuten.”

Antso Gartzeiz Lehena: (905-925)

Gure errege haundi hau, zalantzarik gabe zaldun amorratua zela ez dago ukatzerik.

924 urtean, musulmandarrak Euskalherria erasotu zuten ; ea Ibn-Indari kronistak zer dioten:

..“Erregea berriz azaldu zen bere gizonekin mendi muino baten gainean.. baina gure zaldunek bere gainera erori ziren eta porrot lotsagarri bat eragin zioten, beraren soldaduak hilez eta beraien zaldiak elbarrituz”..

Joxemari Lakarra historialariak hau dio gai honi buruz;

“Ausarta benetan gure erregea, musulmanei jarraitu zien eta baita ere bere zalduneria musulmanen zalduneriaren aurka oldarten ausartu zen zelaietan ,Sartaguda inguruan..”



Antso Gartzeiz I.


Gure errege bizkor eta burrukalariaren heriotzak ere, badu zaldiekin zerikusia, hauxe zioen “Muqtabis V” liburuan Ibn-Hayyan idazleak:

“925 urtean hil zen Antso Euskaldunen erregea...Bazetorren irabazle herri etsai baten kontrako burrukalditik eta hain harro eta zoriontsu zetorrenez, bere zaldia galocean jarri zuen eta zaldia berotu eta lausotu egin zen eta amildegi batean sartu zen. Hantxe amildu ziren biek eta erregea txikituta atera zuten..”

Antso III “Nagusia”: (1004-1035)

Gure errege honek ere maite zituen zaldiak, ea zer irakur dezakegun **“Euskalherria XI mendean”** liburuan;

“Antso nagusiak Genepetrako monastegia eman zion Leirekoari eta horren trukean, bi zaldi eskuratu zituen izan ere, Iruneo erregeek oso gogoko zituzten animali horiek”



Antso Nagusia.

Gartzia III" Naiarakoa": (1035-1054)

Antso Nagusiaren semea ere, aitaren zaletasuna mantendu zuen, hala diote garai hartako idazki batzuk:


Gartzia Naiarakoa 1042 urtean, Clabixoko Fortunerri Zalurribar izeneko herrixka eman zion hau esanez;

"Zaldi bikain eta eder bat eman zenidalako..."

Eta bitxikeri bezela badakigu ere zaldi harren izena, "Otsaburu" deitzen zen.

Antso VII " Azkarra": (1197-1234)

Beharbada,bera da gure errege Euskaldunetan ezagunena.



Antso VII Azkarra.

Betirako famatu zen Aragoiko eta Gaztelako erregeekin batera jo zuen zaldi erasoarengatik, eta honi esker, "Navas de Tolosako" gudaldia irabazi zen, izan ere, garaipen honek Musulmandarren gainbehera suposatu zuen Iberiar penintsulan.



(Antso Azkarraren garaiko zaldun Nafarra,)

Baina ez bakarrik erregeak, jende umilak ere zaldiak, hobeto esanez, behorak bazituen, eta gainera ez nahi adina. Izan ere, garai hartan zaldien hazkuntza hain garrantzitsua izanik, erregulatua zegoen.

Horren adibidea, 1150 urtean Antso" Jakitunak" Durangarrei eman zien fueroetan hauxe esaten zuen gai honi buruz...

"Otrossi que ningun fjiodalgo no traya mas de una yegua domada e que sea ferrada en las manos e con esta dos hijos, e si otro le nacier que lo venda e saque de la casa donde nacio..."

Hau da, erdi-aroan ezin zuten nahi hadina zaldi edo behor hazi, izan ere, beharbada horrek bultzatuko zituen gure antzinako baserritarrei beste hazienda mota batzuk gehiago hazten saiatzea zaldi eta behorren kaltetan.

ARO MODERNOA ETA GAUR EGUN

Aro modernoa gure lurrian, Nafarroaren konkistarekin independentzia galtzea ekarri zuen eta horrekin batera, gure erregeak ere desagertu ziren, hemendik aurerra jende xumearen kontuak aipatuko ditugu.

Erregeekin edo errege gabe, zaldia gudan mantendu zen eta ez bakarrik jende noble eta aberatsen eskuetan, baita baserritarren eskutan ere.

Esate baterako, 1595 urtean, Nafarroako Intza herriko baserritar batek, haxe zuen ondasun bezela: *“bere etxea, lur pixka bat, 20 arkume, 5 ahuntz behor bat eta mando bat”*.

Harritzekoa, izan ere, kasu honetan, gure baserritar honek ez zuen ez behirik eta ez idirik, baina bai behor eta mando bat.



Famili Euskalduna bere pottokarekin. 1950 inguruan.

Eta ez bakarrik baserritarrak, apaizak ere garai haietan zaldi gainean ibiltzen ziren, hala adierazten du 1610ko Nafarroako testu honek:

“...Y a esas razones llego el abad de Errazquin... fue a ponerse a cauallo en casa de esta testigo donde tenia su rocin para ir al lugar de Errazquin...”



Apaiza zaldi gainean, Rikardo Barojaren margoa.

Urteak joan eta urteak etorri, 200 urte geroxeago liburu interesgarri bat idatzi zuen Joxe Agustin Xaho, *“Nafarrorako bidaia Euskaldunen matxinada artean”*. 1830ko hamarkadan Karlisten aurreneko guduaren kronika bat da eta hainbat kontu bitxi aipatzen ditu liburu honek, haien artean gure Euskal zaldiaz mintzatzen da eta hauxe dio;



Zalduneri karlista.

“...Zalduneriarentzat edo ofizialentzat hartu gabe geratu ziren zaldiak ahuntzak bezain txikiak ziren...

Botikariak momentuz zaldiko haietako bat eskuratzea aholkatu zidan eta haietako bat lortu zidan, bizia, sendoa eta eta oso polita. Zoritxarrez, pasta zeraman eta ez zela...

...Nire zaldikoa pauso arin eta zuhurrean zihoan, burua makurtuz eta bidea usainduz. Argitasun eta ausnarketa isladatzen zuten begiradak tartekatuz. Toki zailetatik igarotzean, irrintzi egiten zuen zalantza seinale bezela, sugearen moduan bihurritzen zen eta gero salto egiten zuen oztopoen gainetik...

...Hainbeste konfidantza eman zidan, zeren eta soka utzi eta pastari heldu nion eta ez nintzen paisaiaz gozatzeaz besterik arduratu..”

Zein hitz ederrak eta hunkigarriak eskaini zizkion Xahok gure Euskal zaldikoari!

Izan ere, bere liburuan dioenez Lesakan eskuratu zuen bere zaldikoa eta deskribapenari kasu eginez, gure gaur egungo pottoka deskribatzen du zalantzarik gabe!

Urte bakar batzuk geroxeago, 1847 urtean, Joxe Inazio Iztueta idazle Gipuzkoarrak “ *Gipuzkoako kondaira*” izeneko liburua idatzi zuen, bertan bere hamaikagarren kapituluari, bere herrialdeko ganadu ezberdinez mintzatzen da eta bertan ere, atal bat zamariari eskaintzen die.

Ea ikus ditzagun testu horren zati interesgarri batzuk:

“Abere moeta au, ez geiagotu eta ez gutxiagotu beti neurritsu batean, eta gisa batekoa ezagutzen da Gipuzkoan, zergatik beraganako ez daben ifinten nekazariak ainbeste ardura, nola abere txex, abelgorri etaazienda beltzetara, ikusten duelako antziña antziñatik argiro, obeto baliatzen dala oekin, arekin baino.

Gauza jakina ta egiatzkoa ere da, probintzia onetako jaiotarrak naiago dutela jardun nekazaritzan, ikaztegietan, mea ateratzen, burnigintzan, itsas lanetan eta beste beargai nekosoetan, ezen ez ibili zaldi mutil eta mando zaintzan...”

Gutziz interesgarria Iztuetak zamariari buruz bere idazkia hasi orduko aipatzen duena:

Bere esanei erreparatuz, badirudi ia zalantzarik gabe hemeretzigarren mendeko Euskaldunak ez zituztela zaldi-behorrak asko estimatzen.

(bistan da Erromatar garaiko Arranes Arbizkarren eta legioetako zaldun Euskaldunen ibilerak Euskaldunon gogoan aspaldian ahaztuak gelditu zirela.)

Baina hala ere, testuarekin jarraituz, lerro bakar batzuk geroxeago, gure idazleak pottokaren aipamena egiten du, (bere idazkian “ zaldiño” edo” moxal” bezela aipatzen du), eta bere dohaiak ere aipatzen ditu, ia haren “apologia” ere egiten duela esan genezake, ikus dezagun:

.....”Osterontzeko erri txiki sakabanatuetan dauzkaten zamariak dira menditik olara ikatza eramatekoak, gazta ta arto gariak azokera eta etxera erabiltzekoak, eta beste onelako txirri mirri beren bizimoduari dagozkionetarakoak. Oetako gehienak dira zaldiño gazte, beokatxume eta asto txikitxoak, zeintzuk diraden balio gitxikoak eta beren lan jakiñak egiteko zaldale bearrik ez dabeenak. Zamariki oek aproposak dira txit Gipuzkoako mendi goititu arkaitzartetsuetan ibiltzeko.

Amilbiderik gaiztoen eta aldatsik pikoetan ain zuzen, zintzo ta seguru oi dabiltz, nola ordeka zelai

zabaletan eta are arrigarriagoa da beren lanbide guztiak nola egiten dituzten aïñ ondo, kabestrurik, txalmarik ,ubalik eta perrarik bage, bizkar soil garbian soka batekin zama lotu ta geiagoko laguntzarik egiten etzaiola....”

Kasu onenean idazleak naiz eta Pottokak balio gutxiko animaliatzat jo, toki malkartsuetan ibiltzeko duen gaitasuna gorai patzen du eta baita haren gogortasuna eta mantsotasuna.

Mantsotasunaren gai hau aipatu nahi nuke , izan ere Pottoka , Nafar zaldikoa eta klase honetako hainbat poni arrazak merezi gabeko fama txarra dute, izan ere ,batzuk aipatzen dute berez izuak , maltzurak eta hezigaitzak direla.

Iztuetaren hitzei begiratzuz , esaten du zaldale, kapestru eta ubalik gabe lan egiten zutela bere garaiko Pottoket . Hori beren mantsotasunaren seinale besterik ez litzateke izan!.

“Bertako mugapean jaiotako zamari txume oetakoak Gipuzkoako erririk geienetan arkitzen dira txit ugari. Nork daki , bada, zembat zaldiño, moxal, eta beoka eramaten dituzten probintzia onetatik Arabara, Bizkaira, Erriojara eta beste lekuetara?. Gipuzkoan ezagutzen dira gizonak , zamari txume oetakoak bertan erosi eta erbestean saldu, urtearen zatirik geienean beste egiteko bage dabilzanak. Eta guztien gañekoa da Santa Luzia egunean Zumarragan batuzen da zamari txiki oetako samalda andia. ...”

Hona hemen beste datu interesgarri bat, Pottoka, naiz eta baserritarren abere kuttunena ez izan, ugariak ziren garai hartan, horren adibide apaitzen dituen tratularien eta moxalen ferien arrakasta.



Zaldibia 1917.

Gure herrian betidanik hazi izan ditugu zaldiak, baina behar baino gutxiago erabili ditugu, izan ere tradizionalki, gure zaldikoak hemengo perietan saltzen ziren eta erostunak gehienetan Valentziarrak izaten ziren, izan ere, hango arroz soroetan lan egiteko onak ziren, bere karga gutxi eta indar handia zela medio.

Bestalde bere laburtasuna eta indarra oso aproposak egiten zituen laranja soroetan zuhaitz tartean ibiltzeko.



Pottoka bere moxalarekin.

Haxe zihoen “Diario de Navarra” egunkariak 1907ko Iruñeko periarri buruz:

“..Ganadu asko bildu da.... Zaldiko menditar asko saldu da, urtero gero eta bilatuagoak dira Valentziarregantik eta prezio oso onean ordaintzen dituzte”



Elizondoko periak.

Honen harira hauxe zihoen 1952ean Javier Donezar albaitari Nafarrak bere **“Caballos Navarros”** liburuan:

..“La región levantina, con sus huertas y caminos llanos, reclama este tipo medio de caballo que sin llegar a notable alzada, con poca alimentación y gasto consiguiente, permite una labor agrícola suave y el enganche en ese cúmulo de tartanas que diariamente van el campo a la ciudad..”

La estadística de la feria de San Fermín de 1934 nos habla de 873 potros vendidos a Valencia y Castellón...compradores valencianos, con sus alpargatas típicas y su blusa negra, se presentan antes en los mismos pueblos, haciendo el acopio de potros que necesitan...”



Zaldiko Naparrak.

J.M.Beltran, 1954ko **“Ganado Caballar”** liburuan hauxe zihoen:

..“Aunque de reducido tamaño, los poneys vasconavarros constituyen ejemplares de bonita estampa que se crecen cuando trotan delante del vehiculo que arrastran, sin dar muestras de cansancio...”

Baina hauek iraganeko kontuak dira, duela 50 bat urte mekanizazioa etorri zen eta honek zaldien gainbehera ekarri zuen gaur egungo egoeraraino.

Oraingo Euskal zaldi gehienak haragitarako erabiltzen dira, horregatik Auritzko zaldia eta Euskal mendiko zaldiaren garapena eta ugaltzea, eta bestekik, Pottoka eta Zaldiko Naparraren gainbehera gaur egun. Izan ere denak galtzeko arriskuan dauden arraza bezela onartuta daude eta diru-laguntzei esker mantentzen dira.

ZALDIA EUSKAL MITOLOGIAN, KULTURAN ETA FOLKLOREAN

Lehen aipatu genuen bezela, zaldia Euskaldunok animalia totemiko bezala ikusi dugu, Ekaineko kobazuloetan marraztu genuen eta aintzinean sakrifizio bezela hiltzen genituen Ares jainkoaren oroimenez.

Mitologiari begiratu, zaldia antzinatik garrantzi handia izan du gure herriarentzat, badira kondaira mordo bat zaldia protagonista bezela dutenak, gehienetan zaldia jeinuekin eta MARI gure jainkosarekin erlazioatua dago:

Adibidez, Gipuzkoako Amezketan, badakite ekaitza datorrela *Aralarko MARI zeruan lau zaldiz tiratutako gurdian eserita ikusten dutenean*.

Bestalde, Euskal herriko artzainen ustetan pika gainean kokaturiko zaldi buru-hezurra babes magikorik onena zen ukuiluak eta artaldeak babesteko.

Gure ihauterietan ere, zaldia simbolikoki era ezberdinetan azaltzen da:

Ituren eta Zubietako ihauteriak: joaldunak bere eskuetan zaldiaren buztaneko ileekin egindako hixopua ermamaten dute, eta joareak jotzen dituzten bitartean, hixopu hau astintzen dute izpiritu gaiztoak uxatzeko asmoz.



“Hixopua” zaldi isatsez egina, joalduna.

Lantzeko inauterian ere, “zaldikoa” pertsonaia aurkitu dezakegu.

Iparraldeldeko maskaradetan ere zaldikoa edo “zamtzain” pertsonaia ere aurkitzen dugu.

Altsasuko momotxorroak ere, bere jantzien artean zaldi buztanaren ileak jartzen dituzte aurpegia tapatzeko eta izpiritu txarretatik babesteko.



“Momotxorroa”,

Folklore aldetik, Euskaldunok gure alaitasuna edo ausardia erakusteko erabiltzen dugun oihu bereziari “irrintzi” deitzen diogu hau da, gure oihu berezi eta jatorrena zaldiaren oihu bereziarekin parekatzen dugu.

Euskal dantzetan, bada pauso berezi bat, “ostikoa” deritzona, eta pauso hau, (hanka ahalik eta altuen altxatzen da) zaldi tente jarriaren mugimendu ederrak gogoratzen dituzte.



Aurresku, ostikoa.

Ezin ba ukatu zein garrantzi handia duen zaldiak gure Euskal kulturaren . .



Puska biltzen pottokarekin Lizartzan.

Antzar jokoak:

Euskalherriko hainbat tokitan egiten zen jai bat zen, bi mota daude, bat itsasaldean egiten zena eta dena, (gustiz ezagunak dira Lekeitioko antzar jokoak), kasu honetan, txalupa batetik salto egin eta zintzilik zegoen antzarari lepoa kendu behar zitzaion tiraka. Barrualdean berriz hauxe bera egiten zen baino zaldi baten gainetik.

Arropa bereiziz jantzita zihoazen zaldunak, atorra eta galtza zuriak, txapela gorria eta zenbait koloretako zintak ere eramaten zituzten apaindura gisa. Zaldiak ere zelaz, kiskitinez eta manta eder batzuek apainduta joaten ziren. Bitxikeri bezala esango dugu, joko hau musikaz alaitzen zela, bazuela bere txistu doinu propioa eta zalduna antzarraren lepoa eskuratzen zuenean, txistulariak doinua aldatzen zuen.



Oilar jokoak Lakuntzan 1930.

Antzar jokoak bukatu ondoren, askotan “ piperopil jokoak ” egiten zen zaldiekin, kasu honetan, piperopil borobil bat zintzilikatzen zen eta harren barrenean zaldunak eskuan zeraman burdinazko kako txiki bat sartu behar zuten.

Festa hau, duela laurogei bat urte galdu zela gure herri gehienetan.

-Historio bitxi bat : “ bainuzaleak eta pottokak”;

Gaur egun zaldi turismoa edo “trekking” bezela ezagutzen ditugun aisialdirako kirolak ustez nahiko gauza berria dira gure artean, baina beharbada, gure lurrean duela 130 urte horrelako zerbait ere praktikatzen zen.

Kontu hau azaltzeko historian mende eskas bat egingo dugu atzera, garai haietan, hemeretzigarren mendearen azkenaldian, pertsona boteretsu eta aberatsen artean udaldia bainuetxetan pasatzea modan jarri zen.

Horren adibide dira Zestoan, (gaur egun oraindik martxan dirau), Lizartzan, Kambon, Fitero, Elgorriaga, (hauek biek ere zabalik daude gaur egun), Betelun eta beste hainbat tokitan eraiki ziren bainuetxeak.

Beteluko bainuetxearen kasuan, bezeroei bainuak eskaintzeaz gain, aisialdirako hainbat gauza eskaintzen ziren, dantzaldiak, karta jokoak, inguruko tokietarako txangoak.....

Ikus dezagun Beteluko bainuetxeko 1892ko propaganda orri batek zer zihoen honi buruz..

“Excursiones: pueden realizarse a Tolosa, San Sebastian, Loyola.. porque hay medios de comunicación..

....Las pequeñas excursiones a las montañas vecinas pueden hacerse en caballerías del país.”

Azken esaldi hau da guri interesatzen zaiguna. Badirudi garai hartan inguruko baserrietan pottokak edo zaldikoak alokairuan uzten zituztela aberatsek bainuetxetik gertu gelditzen diren Aralarko mendi tontorretara nekerik gabe igo zitezten.

Gai hauxe bera aipatzen du Joxe Antonlo Rekondo idazle Tolosarrak bere **“Tolosatik Iruñerako erregebidea”**, bere liburuan:

...“Bainulari ausartenek ibilaldiak egiten zituzten Aralarren zehar. Benetako espedizioak ziren eta tresneria guztia eramaten zuten: gidak, zakurrak eta zaldiak.”

Historio honen erakusgarri izan litezke bi argazki hauek;



Ezantza, Aralar 1926.

Argazki honek ongi erakusten du lehen aipatu duguna, espedizio itxurako koadrila bat ikus daiteke beraien asto eta Pottokaz lagundurik zamak garraiatzeko. Argazki hau Aralar mendian aterata dago eta Rekondok bere liburuan aipatzen duenarekin bat dator.



San Miguel 1910.

Beste argazki honetan azaltzen dena ere ziur "bainuzale" aberats bat da, pottoka baten eta bi baserritarren laguntzaz Aralako Santutegira izerdirik atera gabe iritsi nahi duena.

EUSKAL ZALDIAREN ERABILERA GAUR EGUN:

Lehen esan, dugun bezela, gure bizimodu teknifikatu honetan, zaldiaren indarra eta lana ez dauka tokirik eta gaur egun haragi ekoizpenean, kirolean eta aisialdirako ekintzetan dauka bere azken babeslekua.

Zoritxarrez, nahiz eta Donostian hipodromo bat izan, zaldi lasterketak ez dute arrakasta handirik gure artean.

Bestela, idi dema famatuen itzalean, tarteka ere zaldi probak egiten dira gure lurrian baino idi probak baino arrakasta txikiagoa dute. Alderantziz, Balentzian oraindik ospe handia dute zaldi probak:



Zaldi proba Balentzian, puntako zaldikoa, pottoka dirudi, ezta?



Zaldi probak Euskalherrian.

Lehen esan dugun bezela, gaur egungo gure bertako arrazako euskal zaldi-behor gehienak haragitarako ekoizten dira. Gainera ez ditugu guk jaten, izan ere gure herrian zaldi haragia jateko ohitura gutxi dago eta gehienak Balentziara edo Italiara joaten dira.

Bestalde, zorionez badira hainbat hazleen elkarteak bertako Gobernuen laguntzekin gure bertako arrazen purutasuna eta etorkizuna mantentzen saiatzen direnak; **EPOFE**, Pottokaren kasuan, **JACANA**, Zaldiko Naparraren kasuan, **ASCANA**, Auritzko zaldiaren kasuan ..etab.

AZKENEAN,BAGARA ALA EZ GARA?:

Hitzaurrean aipatu dugun Arestiren olerkiari berriro helduz; Euskaldunok, zaldiaren kultura dugun herri bat gara ala ez?.

Lehen aipatu dugun, Iztueta idazle Gipuzkoarrari galdetuko bagenio, seguraski ezetz esango liguke. Izan ere bere liburuan garbi dio bere garaiko Euskaldunek nahiago zutela basoan , nekazaritzan edo meatzetan lan egin, *zaldi mutil* edo *mandozai* lanetan ibili baino.

Nire ustez, garai batean, batipat Aintzin Aroan eta Erdi-aroan gure herriaren biziraupena eta garapena lortzeko guztiz beharrezkoa izan zen zaldia. Berarekin errazago eta azkarrago mugitu ginen, gure etsaien erasoei tinko eutsi genien eta gure lurra gehiago zabaldu genuen.

Hain baliotsua izanik, asko estimatu eta mirestu genuen eta hortik datoz seguraski gure mitologian, kulturean eta folklorea aurkitzen ditugun zaldiaren aztarnak, esate baterako:

- -Zaldien sakrifizio erritualak aintzinaroan.
- Gure Mari jainkosaren errepresentazio bezela,
- -Gure oihu bereiziari “irrintzia” deitzea ez da kasualitatea.
- -Gure dantzetan ere zaldiaren oldatzea irudikatzen dugu.
- -Gure erritoetan ere zaldiaren presentzia aurkitzen dugu.

Baina onartu behar da, denboren joanean, gure herriaren eboluzioan zaldia bere tokia galtzen joan zen , beharbada iada ez genituen hain beharrezkoak bidaiatzeko edo borrokarako eta bestalde behiak eta ardiak haztea errentagarriago suertatzen zitzaigun.

Baina ala eta guztiz ere, ez ditugu sekulan osotara baztertu eta historiaurretik gaur egun arte bide lagun izan ditugu, izan ere idatziei begiratzen badiegu, gure lurrean ugari izan dira beti zaldi-behorrak.

Gaur egun lehen aipatu dugun bezela, Euskalherrian lau bertako zaldi mota daude , Auritzkoa, Euskal mendiko zaldia, Zaldiko Nafarra eta Pottoka, baina egia esatearren aurreneko bi arrazak nahiko berriak dira eta zaldi Bretoi , Frantzesen eta pottoka eta zaldiko Naparraren arteko nahasketetatik datoz.

Saia gaitezen bada, gaurko Euskaldunak, gure herriari hain lagungarri suerta zitzaion adiskidea babesten, zaintzen eta erabiltzen, izan ere berarekin zorretan bai gaude.

Pottoka eta Nafar zaldikorik gabeko Euskalherririk ez!



ETORKIZUNA!

BIBLIOGRAFIA;

-*"Pottoka Euskal Herriko poneia,"* Alberto Muro, Iñigo Pascual. Ed. Bizkaiko foru aldundia, 1997.

-*Archivo diocesano de Navarra*, carton 434, nº 20 fol. 17-18.

-*"Reyes de Navarra"*, Manuel Ilarri Zabala, ed. Mintzoa 1986.

-*"La Navarra maritima"*, Tomas Urzainki Mina, J.M. Olaizola. Ed. Pamiela 4ª ed dic. 2001.

-*"Euskal Herria XI mendean"*, Antso Nagusiaren erregealdia, ed. Pamiela, 2004.

-*"Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques, 1830-1835 "*, Joseph Augustin Chaho, ed. Arthur Bertrand, Paris, 1836.

-*"Caballos Navarros"*, Javier Donezar, ed. Diputacion foral de Navarra. 1952.

-*"Ganado caballar"*, JM. Beltran, de. Salvat, 1954.

-*"Gipuzkoako kondaira"* Joxe Inazio Iztueta, 1847. klasikoak, armiarma.com/idazlanak/iztueta_gipuzkoa.

-*"Boletin establecimiento balneario de Betelu"*, A.M.Cespo Madrid. 1892.

-*"Tolosatik Iruñerako errege-bidea"* Joxeantonio Rekondo, Gipuzkoako foru aldundia, 2010.